

2008ko otsailaren 11an, ASTELEHENA, arratsaldeko ZORTZIRETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Urjentziazko Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- URJENTZIARI BURUZKO PRONUNTZIAMENDUA.
- 2.- ANV-REN ILEGALIZAZIO PROZESUAREN BARRUAN MOZIOAREN AZTERKETA.

Aduna, 2008ko otsailak 8.

ALKATEA.

2.008KO OTSAILAK 11.

EZ OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iker Iturrioz Lekuona.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko otsailaren hamaikako hogeitau ordu eta hamar minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA: **URJENTZIARI BURUZKO PRONUNTZIAMENDUA.**

Alkateak 2.008ko otsailaren 11ko Ez Ohiko Udalbatzaren deialdia deitu zuen. Gai zerrendako lehenengo puntua, premiazko izaera berrestearena da, tramite hau nahitaezkoa delarik 2586/ 1986 Errege Dekretuko 79.artikuloaren arabera.

Ondoren, Alkateak Ez Ohiko Pleno honen deialdiaren urgentzia justifikatzeko dio, komenigarria dela Udalbatza lehen bait lehen burutzea, Espainiako Estatuak indar politiko baten iharduera suspenditzea (ANV) erabaki duelako eta honek, segituan erantzun bat behar duelako.

Jarraian, bilera premiazkoa den edo ez erabakitzeko, gaia botutara jarri da, eta aho batez, premiazkoa dela erabaki dute.

BIGARREN PUNTUA:
ANV-REN ILEGALIZAZIO PROZESUAREN BARRUAN MOZIOAREN AZTERKETA.

Puntu honekin hasi aurretik, Idazkariak aipatzen du, ANV alderdiak aukeztu eta Alkateak irakurriko duen mozioa aztertzeke denborarik ez duela izan eta ez dakiela mozioa legediarekin bat datorren ala ez.

Ondoren, Alkateak ANV-ren ilegalizazio prozesuaren barruan ANV alderdiak aurkezturiko mozioa irakurtzen du, mozioa hitzez-hitz ondorengoa delarik:

- 1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki honek Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu, Euskal Herriaren independentziari ateak ixtea.
- 2.- Udal honek herritarren borondatean du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duen lege edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.
- 3.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest, hortaz, bere babes osoa eskaintzen die EAE-ANV udal taldeko kideei eta erabaki honetatik eratorri daitezkeen ondorioei aurre egiteko konpromiso irmoa hartzen du. Hori horrela mozioarekin batera aurkezten den Neurrien Zerrenda onartzen du udal honek.
- 4.- Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du, independentzia barne. Hori da, gainera, Euskal Herriak bizi duen gatazkari konponbidea emateko bidea, euskal herritar guztiak proiektu guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen marko demokratiko bat eraikitzea, hain zuzen ere.
- 5.- Udal honek erabaki honi aurre egiteko, eskualdean egiten diren deialdi guztiekin bat egiten du herritar guztiak parte hartzera deitzen ditu.
6. Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei.

EAE-ANV UDAL TALDEAREN ESKUBIDEAK BERE OSOTASUNEAN
BERMATUAK IZAN DAITEZEN HARTZEN DIREN NEURRIEN ZERRENDA

- 1.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubide guztiak bermatuak izango dira.
- 2.- EAE-ANV Udal Taldeari bere izena eta izaera errespetatuko zaio.
- 3.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dutela bermatuko da, beste Udal Talde eta hautetsiek izango dituzten berdinak, hain zuzen ere.
- 4.- EAE-ANV Udal Taldeko hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bermatuko da.
- 5.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek beraien lana garatzeko dituzten udal tresna eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bermatuko zaizkie.
- 6.- Erabaki honen ondorioz EAE-ANV Udal Taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du.

Mozioa botutara jarriaz, aho batez, onartzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeitau ordu eta hogeitau minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

